

Bi hitzordu interesgarri Kultur Etxean maiatzaren 20 eta 21ean

Ostiralean João gazte literatura sarituaren euskarazko itzulpena aurkeztuko da

Larunbatean, ikuskizun poetiko antzeztu baten txanda izango da, Poetas en Mayo programazioaren barruan

Vitoria-Gasteiz, 2022ko maiatzaren 13a. Beatriz Giménez de Ory, Paloma González Rubio, eta Beatriz Osés-ek, Santiago Daneyko biolinistarekin batera, antzezlan poetiko bat eskainiko dute Ignacio Aldecoa Kultur Etxean. Ignacio Aldecoa Kultura Etxeak antolatu duen emakume idazleen arteko topaketa antzeztu hau hilaren 21ean, larunbatean, izango da, 12. 30etan, eta “Poetak maiatzean”-eko programazioaren baitan sartuta dago.

Ikuskizunak hiru idazle hauen jatorrizko testu dramatizatuak bilduko ditu, haien ahotsak antzerki-hari baten bidez harilkatuaz, Santiago Daneyko biolinistaren laguntzarekin. Hiru egile, musika, poemak, jolasak eta narrazio fantastikoak.

Azken urteotan jaso dituzten sariak hiru idazle hauen ibilbidea bermatzen dute Haur eta Gazte Literaturan: Beatriz Giménez de Ory da 2021eko Haur eta Gazte Literaturako Sari Nazionala; Paloma González 2019ko Alandar Saria eta 2021eko Templi saria; eta Beatriz Osés 2018ko Edebé Saria eta Barco de Vapor saria 2019 eta 2021an. Adin guztietako pertsonak gonbidatuta daude literaturarekin egingo den topaketa honetara.

Bezperan, Paloma González Rubiok João (2019ko Alandar saria) gazte literaturako lanaren euskarazko itzulpena aurkeztuko du. Bertan, bi gazteren arteko topaketa kontaktzen da, bata itsasontzi batean bere kode ia klandestinoekin bizi dena, eta bestea, kostaldeko herri batean bizimodu konbentzionala bizi duena. Itsas zaporea duen mugako obra da, beraz.

Egileak, Ibaizabal argitaletxeko ordezkari batzuekin eta Aitor Arana itzultzailearen partaidetzarekin, Kultura Etxeko Haur eta Gazte Saileraren hurbiltzen diren pertsonekin hitz egingo du. Horrela, liburuaren sortzaileek bere formakuntza prozesuaz hitz egingo digute: idazketa bera, beste hizkuntza batera itzultzea, eta argitaratze erabakiak, liburuaren bezalakoak izan dadila halbidetzen duten faktore ezberdinen arteko elkarriketa bat. Literatura eta bereziki gazte literatura maite dutenentzat luxu bat.